

Independentziaren aukera

VITAUTIS Lanbsberghis Lituaniako presidenteak ezin zuen amestu iragan uztailan, handik hilabete t'erdia Estatu independente baten buru izango zenik. Strasbourgon zegoen uztailan, Europako Parlamentu aurrean mintzatzeko asmotan, baina ez zioten horretarako aukerarik eskaini. Elkarrizketa eskatu nion, eta berarekin elkartu nintzenez, datorren urteko Helsinki-2 bilerarako kezak agertu zizkidan, ea posible egingo ote zitzaizen Errepublikak Baltiarrei bilera horretan beren kasua azaltzea.

Ordutik bi hilabete joan dira eta Lituania, Estonia eta Letonia Nazio Batuen Erakundean esertzen dira orain.

Europa zabaleko azken gertakariak igortzen diguten mezua ondoko hau da: independentzia aukera politikoki posiblea dela, gaur egun Estatu berriak sortzen ari direla bizitza politikora. Egun gutxitan, Nazio Batuen Erakundean 159 Estatu zegoen tokian 166 agertu dira, 7 Estatu sortuberri, beraz.

Kontua da, oraingo honetan, Estatu jaioberriak ez direla soilik Afrika, Asia eta Hegoamerikako lurraldeetan deskolonizazio-prozesu berantiarren ondorioz jaio ohi direneta-koak; Europaren bihotzetik datoz batzuk, eta jaioa dira berriak ere, denbora luza gabe.

Prozesu horiek aurrez-aurre ikusirik eta

norbere etxe barruan errepikaturik ikustearen beldurrez, «*Legitimitate mugatua*» dei daitekeen teoria kanporatu dute Europako Komunitateko Estatu batzuk: Lituaniarako balio duenak ez omen du Euskadira balio, lehenengo noizbait Estatua izan denaren legitimazioaz jantzirik dagoelako.

Doktrina horren ahulezia begibistakoa da, batetik laster batera ikusi behar ditugulako baldintza hori inoiz bete ez duten Estatu berriak: Eslovenia eta Kroaziaren independentzia ez dago urrun. Baina bestalde, nola uka dakioke legitimaterik Euskal Herria den Europako herririk zaharrenetarikoa?

Argudio gehiagoren ezean, debekura jo du berriro ere Gobernu espainiarak: euskaldunok ez bide dugu independentziaren alde agertzeko eskubidea bera ere ez.

Helsinki-2 deituriko Nazioarteko Konferentzia bilduko da 1992an, 38 Estatu elkartzen dituen CSCF erakundearen eskutik; antza denez, bilera horretan finkatu behar dira Europa zabalean ezarriko diren nazioarteko arauak, autodeterminazio-eskubidearen praktika eta Estatu berrien sorrera-moduak, besteak beste.

Izango da lehenago ere bilerarik, artean azaroaren 27tik 29rarte Strasbourgen elkartuko den Europako Eskualdeen Konferentzia; bilera horretan izango dira, besteren artean,

Pujol eta Ardanza, hau da, nazioen askatasuna independentziaz kanpo eta eskualde europarren artean aurkitu beharra aldarrikatzen dutenak. Baina Europaren Batasunerako bidean, Estatuek egindako arauetan erabat murrizturik gelditzen da eskualdeen zeregina, eta gainera «eskualde europarrak» horiek zerikusi gutxi dute nazioekin, ez datoz inola ere hauekin bat.

Harrigarriena zera da, eskualdeen bide hori horrelakoa izanik, eta azken gertakarien ondorioz bestalde independentziaren aukera berrindartu denean, bide honetatik aurrera egin beharrean, atzera egin duela Ardantzak, independentziaren aurka eta Konstituzio espainiarren alde agertuz.

Duela 12 urte Euskal Herria zatikatu zuen autonomia desberdinen bideak izandako emaitzak bistakoak dira: herri-zatiketa, alternatibarik gabeko gainbehera ekonomikoa, polizi zigorra eta presoengatik, euskararen etorkizuna hodei beltzez estalia... Administrazio autonomikoak hondoa jo eta krisi politikoa nabarmendu duen arte.

Independentziaren aukera berrindartu egin da, aurrekoaren ondorioz, Euskal Herrian.

KARMELO LANDA

HERRI BATASUNAREN EUROPATUTATUA

Bia da gure zenbaki magikoa

AHAIDE Nagusiak urrun samar gertatzen zaizkigu, baina bitan batatzen ziren: oinaz eta ganboarrak. Euskal Herria bera bitan zatitua dago: Frantziaren parte bat; eta Espainiaren bestea. Hegoaldea beste bitan: Euskadi eta Nafarroa. Zoritxarrez, Euskal Herriak ez du inoiz izan batasun politikorik.

Euskal Herriak foruak izan zituen ordea. Karlitzak ziren foruen zaindaria. Baina orduko euskaldunek ere, dirudienek, zerbaiten alde lan egiten ez zekiten, zedozerren kontra baizik. Horregatik sortu edo hartu zuen indarra liberalismoak Euskal Herrian. Besterik uste badugu ere, liberelek karlistei gauzak asko erraztu zizkieten. Ez zeukaten pentsatu beharrik. Liberelek esaten zutenaren kontrakoa egitea aski zuten.

Berehala banatzen dituzte rola liberelek eta karlistek. Karlistei zegokien euskara, euskal ohitura, folklore, baserria, bereiztasunak, erlijioa... salbatzea; Liberelei, Espainiaren batasun politikoa, uniformitatea eta abar predikatzea.

Nazionalisten txanda da gero, eta hauek hartuko dute karlisten tokia. Ondorioz, zerbait gehiago erantsita noski, karlistek defendatzen zuten balore kutxa nazionalisten eskuetara pasatuko da. Nahiz eta praxian gutxiagorekin konformatu, zerbait gaintitu nahi denean,

ezinbestekoa da errebindikazio termometroari gora eragitea. Beharbada, egunen batean, gaurko nazionalismo moderatu hau gaintitu eta beste erradikalago batek har leza ke honen lekua. Ez dakigu noiz eta nola, baina ez litzateke harritzekoa izango HB edo gisakoren baten inguruan erro litekeen erradikalismoak, denboraren poderioz, PNVren bueltan gorpuzturik dagoen nazionalismo moderatua gaintitzea. Gaintitzea, lehen esan dudan sentiduan, hau da, PNV-ren presupostuak bere eginik eta, teoriarik, zerbait gehiago erantsiz.

Era berean, liberelek ezkutatu eta sozialistak plazaratzen dira. Sozialismoak ere teoriarik baizik ez ditu hautsi, kasik, kapitalismoaren moldeak, baina aurrerakadatzat jo beharko dugu. Nahiz oraingoz probalitate hori urrun ikusten den, baliteke egunen batean sozialismoa, ideologi bezala bederenik, gaintitua izatea. Ideia nagusiek ordea, Espainiaren batasuna eta abar lehen jarraituko dute.

Zergatik ez dute, baina, nazionalismoak eta sozialismoak elkar superatzen? Hortxe dago gakoa! Eta egin da ahaleginik. Mario Onaindia buru zela, bokazio horrekintxe sortu zen EE. Euskal Herriko zatiketa historikoa gaintitzea zuen helburu. Benetan ekimen txalogarria, baina injenuo samarra ere bai, apika. Azkenean porrot egin du. Zergatik frakasatu dute,

ordea, EEren ideia eta asmoek? Politika txarra egin duelako? Ez. Partidu honek aportazio handiak egin dizkio euskal politikagintzari. Kontrario politikoen azpijokoagatik erori da, orduan? Ezta ere.

Kontresan dialektikoa eta kontrario diferentente teoriak argitzen du gauza asko, nire ustez. Karlismoa eta nazionalismoa kontresan dialektikoan zeuden. Liberalismoa eta sozialismoa ere bai. Baina ez hala nazionalismoa eta sozialismoa. Hortxe dago arazoa. Baina ez hala nazionalismoaren artean kontresan dialektikoa sortu arte, kontrario diferententeak izaten jarraitzen duten bitartean, ez dago itenbiderik. Bihotzarekin gauza bat eta mingainarekin beste bat esanez ibiliko gara. Agian lortuko dugu bihotza eta mingaina bat etortzea ere, baina arrazoiak beti exijituko digu gehiago.

Bizitzan, eta eguneroko bizitzan, funtsezko eta esentzialak diren elementuak nazionalismoari txertatu ezik, ez dugu kontresan dialektikorik sortuko eta printzipioekin bueltaka eta idealismo puruan galdurik ibiliko gara. Ez zaigu faltako sesio eta liskar antzurik. Berriz ere beharko dugu EEren antzeko zerbait. Baina idiak baino lehen uzarririk ez!

RUFINO IRAOLA GARMENDIA

IDAZLEA

BERRIAK ZIRI



CARLOS GARAIKOETXEA
Eko buruzagia
DIARIO 16
1991-IX-20

«EAJk oso garesti ordaindu beharko du Gobernu nazionalista apurtu izatea»



JONAN FERNANDEZ
Lurraldea Koordinakundeko
bozeramalea
EGIN
1991-IX-20

«Mobilizazio handi bat izan daiteke akordioa salbatzeko azken aukera edo bakarra»



RICARDO ANSOTEGI
EAJko diputatua
DEIA
1991-IX-20

«Espainiako Gobernuak Euskal Herriko industri politika zehaztu gabe du oraindik»



EDUARD XEVARNADZE
Soviet Batasunako Kanpo
Arazoetarako ministro ohia
EL SOL
1991-IX-20

«Egoera kontrolatzen ez bada Europa osoan eragina izan dezakeen errepublikaren arteko gerra zibila sortu daiteke»

ZAKILIXUT



© Olariagak